

EGUBERRI EGUNEKO MEZA

Lehen irakurgaia.

(*Berri ona*)

Izai profetaren liburutik 52,7-10

- 7 **Bai ederrak direla mendi gainetan
bakearen berria ekartzen duen mezulariaren oinak,
berri ona eta salbamendua erranez dabilanaren oinak,
Ziongo hiri sailduari erraiten diolarik:
Errege da zure Jainkoa.**
- 8 **Entzun: zure zaintzaleak oihuka ari dira,
irrintzinaka guziak batean,
ikusten baitute Jauna berriz heldu dela Zionerat.**
- 9 **Egin bozkarioz oihu, Jerusalemeko harresi zahar eroriak,
Jaunak bere herria kontsolatu baitu
eta salbatu Jerusaleme.**
- 10 **Jaunak, herrialde guzien aitzinean,
erakutsi du bere besoaren indar gaitza.
Eta lurraren bazter guziek ikusiko dute
Jainkoarengatik salbamendua.**

Testo huntan baditugu bi pertsonaia : mezularia oinez, bertzea hiri-zaintzalea. Mezularia lasterka doa Jerusalemerat, jakinarazteko Babilonetik desterratuak gibelerat heldu direla. J.K. aitzineko 587an, Nabukodonozorren soldadoek Jerusaleme xehatu zuten. Populuak denak galdu zituen : herria, Jerusaleme hiri saildua eta hango Tenploa. Tenploa Jainkoaren Presentziaren seinalea da populuaren erdian. Izaik erraiten dauku: « *Bai ederrak direla...bakearen berria ekartzen duen mezulariaren oinak, berri ona eta salbamendua...* » Bakea, salbamendua, Berri Ona da desterratuentzat. Hiri saildua, Zion, Jerusaleme behin eta berriz aipatuak dira testo huntan. Hiria suntsitua da, kasik hila, bainan berriz piztuko da. Mezularia badoa hiri suntsituaren lasaitzera : « *Egin bozkarioz oihu, Jerusalemeko harresi zahar eroriak !* »

Zaintzaleak ikusten du lehenik mezularia. Berehala ulertu du denak bozkariotan sartuko direla, eta nor da denen aitzinean ? Jainko Jauna bera, berriz heldu Zionerat. Populuarekin kurri dabila eta hemendik goiti Jerusalemen egonen da populuaren erdian. Jainko Jaunak berriz « erosi » du Jerusaleme, « erosi », erran nahi baita « libratu ». « *Erakutsi du bere besoaren indar gaitza...* » Bainan, mementoan, Jaunaren besoaren indarra haur ttipi baten besoak dira.

Salmoa 97

Leloa : Lur guziak du ikusia salbamenduko iguzkia.

**Kanta Jaunari kantu berri,
Harek eginak baitira oro miragarri.
Salbatzaile da jeiki Jauna:
Ikusi dute zoin ona dugun, zoin zuzena.**

**Izraelentzat zer laguna:
Erakutsi du bere betiko bihotz ona.
Lur guziak du ikusia
Gure Jaunaren salbamenduko iguzkia.**

**Kanta Jaunari lur guzia !
Pitz eta kanta, bai bozkaria, bai loria !
Egin Jaunari soinu, kantu !
Jo xirribika, jo salmo, ttunttun eta xistu !**

Bi ohar:

- Salmo hau garaipen oihua da : Izraelen, errege bakarra, nausi bakarra Jainkoa da. Salmo huntan Jainkoa goraiatzten da.

- Jainkoaren bi amodioak : Izrael hautatuaren eta gizadi guziaren amodioa. Bai, Izrael populu hautatua da, baina ez bakarrik gozatzeko haur bakar batek egiten duen bezala, baina anaia gehiena balitz bezala. Jainkoak ez du bakarrik Izrael maite, baina gizadi guzia. Izraelek Jainkoa errege bezala goraiatzten duelarik, badaki gizadi guziaren izenean egiten duela. Hautu hori zinez premiatsua da, baina ez du ahantziko mundu guzian dirdiratu behar duela.

Bigarren irakurgaia.

(Semeak Aita agerrarazten)

Hebrearri epixtolaren hastapena 1,1-6

- 1 Haurrideak, askotan eta asko moldez
Jainkoa mintzatu zen lehen gure arbasoeri, profeten bidez.**
- 2 Guri mintzatu zaiku, azkenak diren egun hautan,
bere Semearen bidez.
Hura ezarri baitu ororen premu, haren bidez egin baitu mundua.**
- 3 Hura da Aitaren aintzaren dirdira, eta haren izaitearen irudia,
eta guziak bere hitz boteretsuz dakarzki.
Seme hori, bekatuen garbiketa egin ondoan,
jarri da Jainko guziz handiaren eskuinaldean zeru gorenetan;**
- 4 aingeruak baino gorago ezarria da,
ondareztat duen izena heiena baino askoz goragokoa baita.**
- 5 Alabainan, aingeruetarik zeini dio Jainkoak sekulan erran:
“ Nere semea zira zu, nik zaitut gaur sortu ” ?
Eta oraino:
“ Ni aita izanen nau, eta hura izanen dut seme.”**
- 6 Bere lehen sortua munduan sarraraztean, aldiz, erraiten du :
“ Adora dezatela hura Jainkoaren aingeru guziek !”**

Testo huntan idazleak gogoetak egiten ditu Kristoren mixterioaz. Idatzi hau igorria izan bide da judu girixtinotu batzueri. Pentsaketak eginen dituzte idatzi hunekin eta ikusiko Jesus Mesias-erregea dela, Mesias-profeta, Mesias-apeza.

- Lehen bi bertsetek bi partetan zatitzen dute gizadiaren historia : Jesu Kristo aitzin, Jesu Kristo ondo. Testoak erraiten du : « *Mintzatu da profeten ahoz.* » Profetak Jainkoaren aho izan dira. Mende guzietan Profetak Jainkoaren izenean mintzatu dira. « *Azkenak diren egun hautan* » aldiz, mundu berriaren hastapena da : Jainkoaren asmoa bete da.

- Jesus « *Mesias-profeta da.* » Idazleak erraiten dauku : « *Guri mintzatu zaiku... bere Semearen bidez.* » Jesus zinez profeta da, ez da bakarrik *Jainkoaren ahoa*, haren hitza da. Jainkoak « *haren bidez egin du mundua.* » Oraino gehiago : « *Hura da Aitaren aintzaren dirdira eta haren izaitearen irudia.* » Jesusek bere buruaz erran du : « *Ni ikusten nauenak ene Aita ikusten du.* »

- Jesus « *Mesias-apeza da* » « *bekatuen garbiketa egiten duena.* » Berez, apez-nausiarena da Jainkoaren eta bektorosaren bitarteko izaitea. Bere Aitarekin amodio betea bizi duelakotz, Jesu Kristok berritzen du

Jainkoaren eta gizadiaren arteko batasuna. Hura da beraz apez-nausi osoa. « *Bekatu*en garbiketa » hori bere bizi guzian egin du Jesusek, bere Aitarekin amodiozko eta obedientziazko elkarrizketa hertsian egonez.

- Jesus « *Mesias-erregea da.* » Osoki Erregea. Badugu hemen errege tronuaren irudia : « *Jarri da Jainko guziz handiaren eskuinaldean* », eta partikulazki deitua da « *Jainkoaren Seme.* » Titulu hori emaiten zen errege berri bakotxari, sakratze egunean : « *Nere semea zira zu, nik zaitut gaur sortu.* » Hitz horiek erraiten ziren egun hartan. Errege da kreazone guziarendako, ageri diren eta ez diren guziendako : « *aingeruak baino gorago ezarria da.* »

Hots, Jesus apeza, profeta, eta erregea da, hortakotz izendatzen ahal dugu *Kristo* edo *Mesias*. Testu hunek jakinarazten dauku Jesu Kristorekin bat egiten dugunaz geroz, gu ere deituak izaiten ahal girela seme, errege, apez, profeta, haren baitan. Eguberriko haurra mixterio horren ekarlea da eta gu haren baitan eta harekin.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

**Guri egungo egun sainduak, zer argia!
Herriak etor, Jaunari eror belauniko,
Egun, argi bat, zein handia, lurrera jautsi zaikulako!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 1,1-18

- 1 Haste hastean bazen Hitza.
Hitza Jainkoarekin zen,
eta Jainko zen Hitza.**
- 2 Haste hastean Jainkoarekin zen.**
- 3 Haren bidez eginak izan dira oro,
eta egin denetik deus ez da hura gabe egin .**
- 4 Haren baitan zen bizia, eta gizakien argia zen bizia.**
- 5 Argiak ilunbetan argitzen du,
eta ilunbeek ez dute onartu.**
- 6 Agertu zen gizon bat Jainkoak igorria: izena zuen Joanes.**
- 7 Lekuko izaitera etorria zen, argiaren lekuko izan zadin,
haren bidez guziek sinets zezaten.**
- 8 Bera ez zen argia, bainan argiaren lekuko izan behar zuena.**
- 9 Hitza zen egiazko argia,
mundurat etorritz gizaki guziak argitzen dituen.**
- 10 Munduan zen, eta mundua haren bidez egin zen,
bainan munduak ez du ezagutu.**
- 11 Bere tarat etorri da, eta bereek ez dute onartu.**
- 12 Bainan onartu duten guzietan,
haren izenean sinesten duteneri
eman diote Jainkoaren seme izaiteko ahala.**
- 13 Hauek ez dira odolatik sortu, ez haragiaren nahitik,
ez eta gizonaren nahitik,
bainan bai Jainkoarengatik.**
- 14 Eta Hitza haragi egin da,
eta gure artean egin du bere egoitza.
Ikusi dugu haren aintza,
Aitarengatik, Seme bakar gisa, daukan aintza,
Graziaz eta egiaz betea.**
- 15 Joanesez lekukotasun egiten dio, goraki diola:
“ Hau da nik erraiten nuena:
Ene ondok heldu dena aitzindu zait,**

ni baino lehen baitzen.”

- 16 **Bai, haren betearen betetik denek ukan dugu,
eta grazia graziaren gainean.**
- 17 **Legea Moisen bidez emana izan zaiku;
grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri zaizkigu.**
- 18 **Egundaino nehork ez du Jainkoa ikusi:
Seme bakarrak, Aitaren altzoan denak,
eman dauku haren berri.**

« *Haste hastean* » : Joanik emaiten du Bibliako lehen liburuaren hastapeneko hitza : *Hastean*. Orogen abiapundua.

« *Haste hastean bazen hitza.* » Hitza da denen hastapena. Aspaldiko filosofoek ospatu dute hitza denen hastapen bezala (Logos). « *Haste hastean hitza Jainkoarekin zen.* » Hitza Jainkoari buruz itzulia da. Norbaiti erraiten diogularik « maite zaitut », bekoz-beko gira. Bizkarrez emaiten bagira solasa hausten dugu ; berriz solas egiteko, aurpegiz jarri behar dugu.

Jondoni Joanik erraiten dauku gauza bat premiatsua: kreazione osoa Aitaren eta Semearen artean den amodiozko elkarrizketaren fruitua dela eta gu kreatuak girela solas hortan eta solas horrendako. Gizadiaren bokazionea da bizitzea beti amodiozko solasean Aitarekin. Bainan, zorigaitzez, bertzela egiten dugu. Adam eta Ebaren bekatuak erakusten dauku solasa moztua dela. Gizon eta emaztea beldurtuak dira, uste dute Jainkoak tronpatu nahi dituela. Guhaurek ikusten dugu solasa pozoindatzen dela ustekerian sartzen girelarik. Jainkoarekin berdin da, batean haren baitan konfiantza badugu, bertzean ez, batean itzuliak gira haren ganat, bekoz beko harekin, bertzean bizkarrez gira. Biblian itzultzea « bihozberritzea » da.

Kristo eta Aita elkarrizketan dira itzalik gabe ; Kristo gizadiaren buruzagi da ; harek du erraiten « Bai » egun guziz Aitari gure izenean, harek gaitu berriz sartzen lehenbiziko hitzean : « *bainan onartu duten guzieren, haren izenean sinesten duteneri eman diote Jainkoaren seme izaiteko ahala.* » Kristoren xede berezia da gizadi guziak onart dezan amodiozko solas hori, « *munduak sinets dezan* », hori baita Jesusen gutizia bakarra. Kierkegaard filosofoak erran du : « *Bekatuaren kontrarioa ez da bertutea, bekatuaren kontrarioa fedea da.* » Fedea da Aitari konfiantza egitea eta sinestea Jainkoak ez gaituela sekulan tronpatuko, maite gaituela ; hola munduari so egiten ahalko diogu haren begiekin.

« *Eta Hitza haragi egin da* », erran nahi baita gure erdian dagola, ez da mundutik ateratze beharrik Jainkoaren aurkitzeko. Munduaren aurpegian berean ikusten dugu haren presentzia.